



Arriaga

etxebizitza

Aldakerak: Arriagaetxenagusia
Ahozkoa: Arrixa / Arréilla

43° 10' 10"

2° 35' 39"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Arriaga etxe-multzoan nagusia dugun baserri honen gaineko aipuak Bizkaiko su-errolde-tan aurkitzen ditugu: *Arriaga* 1704an eta *Arriaga Echenausia* 1796an. Gerora, dokumentu guztietan izen biak uztartu egin dira: batzuetan, *Arriaga* agertzen da, eta beste batzuetan, aldiz, izen konposatu gisa, *Arriaga Echenagusia* (1892, DJE, 6/ 99. or.) kasu. 1859ko izendegian, ostera, etxe-multzo guztiari erreferentzia egiten dion *Arriagas* izena aurkitzen dugu. Berriztarren artean, *Arrixa* edo *Arréilla* moduan ezagutzen da baserri hau.

Baserri barroko ederra, aldaketa txikiren bat jasan duena, ezker aldean igartzen den harri taiuketak edo balkoi erako leiho luzeak adierazi moduan. Fatxadaren antolamendua garbia eta guztiz simetrikoa izango zen. Harlandua erabili zuten etxearen kantil eta bao guztietan, oso kalitate oneko hareharria. Erdian, atartera sartzeko arku bikaina; eta alde banatan, leiho bana. Lehenengo solairuan, erdialdean, beste bi leiho zituen (bat, balkoi bihurtua beranduago); eta aldemenetan, txikiagoak, teilatuari egokitzeko, txikia den moduan ganbaran dagoena. Bi isuritako teilatua dauka.

“... la casería rústica titulada Arriaga... situada en jurisdicción de la anteiglesia de Berriz, que comprende con su tejavana y franquicias sesenta estados equivalentes a doscientos veinte y siete metros cuadrados de cabida, y la que se compone de sus correspondientes divisiones y habitaciones...”
DJE 2/184 or. (1868)

“... la casería rústica titulada Arriaga-Echenagusia... del barrio de Eitua de la anteiglesia de Berriz... se compone de piso llano con zaguan de entrada, dos cocinas, dos cuartos, cuerdas y una tejavana horno por el exterior en el ángulo Sudeste, de piso principal con dos cuartos y pajar y encima en la parte centrar camarote: mide su planta con inclusión del horno trescientos cuarenta y cuatro metros...”
DJE 6/95 or. (1892)

toponimia

Izen gardena, eta Euskal Herria menditxu honetan ugaria, leku askotan ageri baitira harriak. Ondorioz deitura moduan ere zabala izan da. Osagaiak harri eta -aga leku-atzizkia.